

Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren ERAGINAK



Sarrera

Kirolean aritzen diren ume guztiek espazio segurua eta babeslea bermatuta izan behar dute, eta helduak kirolarien ongizatearekiko sentsibilizatuta, prestatuta eta arduratuta egon behar dira.

Orain dela gutxi onetsi den Umeak eta Nerabeak Babesteko Lege Organiko berriaren bitartez, aurrerapauso garrantzitsua eman da umeak babestearen alorrean, kirolean barne. Kirola ongizate, poztasun, alaitasun eta askatasun espazioa izan behar da umeentzat. Ez dugu ahaztu behar umeek honetarako egiten dutela kirola:

- Ongi pasatzeko.
- Dibertitzeko.
- Lagunak egiteko.
- Kirol trebetasunak hobetzeko.
- Hunkitzeko.
- Irabazten saiatzeko.

Familiarekin eta eskolan egoten diren orduen ondoren, umeak kirola egiten igarotzen dute denbora gehien. Ezinbestekoa da baloratzea garrantzitsua dela umeak kirola egiten daudenean babestuta egon behar direla.

2.

Kirola ezinbesteko tresna da umeen garapen osorako, behar bezala erabiltzen bada.

Historikoki, kirol instituzioek, erakundeek eta klubek ez dute modu kontzientean eta lehenetsunez umeen aurkako indarkeria prebenitu eta tratu ona lehenetsi, azken horiek kirola egiten dauden bitartean.

Argitalpen hau ATERPE programaren barruan dago: Athletic Clubeko Haurren Babeserako eta Tratu Onerako Programa.

2021ean egina.

Testuaren egilea: Iñaki Alonso Athletic Clubeko Haurren Babeserako arduraduna.



Eskubideak dituzten subjektuak dira umeak

Kirola egiten duten umeak eskubideak dituzten subjektuak dira.

Umeak ez dira kirolariak bakarrik. Kirola egiten dute gure erakunde, klub edo eskolan, baina, bestelako garapen esparru eta behar batzuk ere badituzte. Umeak bakarrik "kirolari" gisa ikusten baditugu, kirol eremuan gauden helduok beste alor horiek zaindu eta lantzea "ahazten" dugu.

Ume guztiek eskubidea dute kirola giro osasuntsu eta babesle batean egiteko eta, horretarako, beraien ongizatea lehenetsi behar da. Gure erakundeetan egin behar dugu hori.

Umeen aurkako indarkeria kirolean

Umeen aurkako indarkeria-egoera asko normalizatuta daude edo ikusezinak dira oraindik ere kirolean.

Umeen kirolaren inguruan mugitzen diren erakunde eta pertsona guztiek zaintza eta babes erantzukizuna beraien gain hartu behar dute.

Umeak babesteko eta tratu ona bermatzeko aurrerapauso oso handia eman behar dugu.

Kirola egiten duten umeak zaintzeko eta horien garapen integrala bermatzeko erantzukizuna gure gain hartu behar dugu. Umeak kirolari gisa bakarrik ikusten dira kirola egiten daudenean.

Indarkeria jokabideak ez dira onartu behar, horiek sufritzen dituztenengan inpaktua baitute orainaldian eta etorkizunean. Kirolean lehentasuna izan behar du arriskuen detekzioak, hezkuntzak, prestakuntzak eta prebentzioak.



Umeei babes osoa emateko Lege Organikoaren edukia

I.- Kirolari eta kirol eragileei (instituzioak, federazioak, klubak, erakundeak, profesion- alak, boluntarioak, eta abar) eragiten dieten apartatu orokorrak.

II. TITULUA

4. artikulua. Irizpide orokorrak.

- f) Umeekin eta nerabeekin ohiko harremana duten profesionalen espezializazioa eta trebakuntza, indar-keria egoera posibleak goiz detektatu ditzaten.
- g) Adingabeen autonomia eta prestakuntza indartzea, beraiei edo hirugarrenei egin diezazkieketen indar-keria egoera posibleak goiz detektatzeko eta horien aurrean modu egokian jokatzeko.

5. artikulua. Prestakuntza.

- 1. Administrazio publikoek, beraien eskumenen esparruan, prestakuntza espezializatua, hasierakoa eta jarraitua sustatu eta bermatuko dute umeen eta nerabeen oinarritzko eskubideen alorrean, eta pres-takuntza hori adingabeekin ohiko harremana duten profesionali emango die. Gutxienez honakoak jorratuko dira prestakuntzan:
 - a) Lege honetan jasotako indarkeria mota guztiak goiz detektatzeko eta prebenitzeko heziketa.
 - b) Indarkeria zantzuak detektatu ondoren gauzatu beharreko jarduketak.
 - c) Interneteko segurtasun eta erabilera seguruko prestakuntza espezifikoa, erabilera intentsiboarekin eta jokaera nahasmenduak sortzearekin lotutako gaiak barne.
 - d) Umeei eta nerabeei eman beharreko tratua ona.
 - e) Arrisku faktoreak eta indarkeriarekiko esposizio eta zaurgarritasun handiagoak identifikatzea.
 - f) Bigarren mailako biktimizazioa saihesteko mekanismoak.
 - g) Umeei eta nerabeek sufritzen duten indarkerian genero rolerik eta estereotipoek duten inpaktua.

4.



II. TITULUA. Indarkeria egoerak jakinarazteko betebeharra

15. artikulua. Herritarrek jakinarazteko duten betebeharra. Adingabe baten aurkako indarkeria zantzuak atzematen dituzten pertsona guztiek derrigorrez berehala horren berri eman behar diete agintaritza eskudunei, eta egitate horiek delitu eratzailleak izan daitezkeenean, Segurtasun Indar eta Kidegoei, Fiskaltza Ministerioari eta agintaritza judizialari, albo batera utzi gabe biktimari berehala arretea ematea.

16. artikulua. Kualifikatutako komunikazio betebeharra.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako jakinarazpen betebeharra bereziki aplikatzen zaie beraien kargua, lanbidea, ofizioa edo jarduera dela-eta umeak edo nerabeak zaintzeko, hezteko edo babesteko ardura dutenei, eta horiek egikaritzuz, azken horiengan egindako indarkeria egoera baten berri izan dutenei. Edonola ere, inguruabar horren barne daude osasun zentroetako, ikastetxeetako, **kirol eta aisialdi zentroetako**, umeak babesteko zentroetako eta adingabeen erantzukizun penaletako, asiloko harrera zentroetako eta giza arretarako zentroetako (horietan ohiko moduan edo behin-behinean adingabeak bizi direnean) langile kualifikatuak, baita ere gizarte zerbitzuetako langile kualifikatuak.
2. Aurreko apartatuan aipatutako pertsonen adingabe baten aurkako indarkeria egoera baten zantzuak berri izanez gero edo horrelakorik gertatzen ari dela jakinez gero, berehala jakinarazi beharko diete gizarte zerbitzu eskudunei. Gainera, indarkeria horren ondorioz umearen edo nerabearen osasuna edo segurtasuna mehatxatuta egonez gero, berehala horren berri eman beharko diete Segurtasuneko Indar eta Kidegoei eta/edo Fiskaltza Ministerioari.

17. artikulua. Umeek eta nerabeek indarkeria egoerak jakinaraztea.

. 5

1. Indarkeriaren biktima diren edo adingabe baten aurkako indarkeria egoerak ikusten dituzten ume eta nerabeek, beraiek zuzenean edo legezko ordezkarien bitartez horren berri eman ahal izango diete Gizarte Zerbitzuei, Segurtasuneko Indar eta Kidegoei, Fiskaltza Ministerioari edo agintaritza judizialari eta, hala dagokionean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.
2. Administrazio publikoek komunikazio mekanismo seguruak, konfidentzialak, eraginkorrak, egokituak eta irisgarriak ezarriko dituzte umeek eta nerabeek uler dezaketen hizkera erabiliz, eta azken horiek aurreratzen duten konfiantzazko pertsona batekin egon ahal izango dira.
3. Administrazio publikoek bermatu egingo dute jakinarazpenetarako bitarteko elektronikoak daudela eta horiek erabiltzeko laguntza ematen dela, besteak beste umei laguntzeko doako telefono lineak, eta gizarte zibilak horien berri izatea baita ere, izan ere, pertsona guztientzako eskuragarri dagoen ezinbesteko tresna da, horren bitartez, umeen eta nerabeen aurkako indarkeria egoerak prebenitzen eta goiz detektatzen baitira.



II.- Zehazki kirolean aplikatu beharreko apartatuak.

IX. KAPITULUA. Kirola eta aisialdia

47. artikulua. Kirol eta aisialdi alorretan gertatzen den indarkeriaren aurka jarduteko protokoloak.

Administrazio publikoek, beren eskumenak egikaritzuz, **kirolaren eta aisialdiaren alorretan inguru segurua eraikitzekeo jarduketak jasoko dituzten protokoloak arautuko dituzte**; protokolo horiek bete egin beharko dira kirolean eta aisialdian umeen eta nerabeen aurka gerta litezkeen indarkeria egoerak prebenitzeko, goiz detektatzeko eta horien aurrean esku hartzeko. Halaber, protokolo horiek kirol eta aisialdi jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu behar dira, horien titulartasuna albo batera utzita, eta, edonola ere, ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALEKO LEGERIA ERATUAREN 36. orrialdean jasotako sarean: errendimendu handiko eta kirol-teknifikazioko zentroetan, kirol-federazioetan eta udal-eskoletan.

48. artikulua. Ohiko moduan adingabeekin kirol edo aisialdi jarduerak egiten dituzten erakundeak.

1. Ohiko moduan adingabeekin kirol edo aisialdi jarduerak egiten dituzten erakundeek honakoak bete beharko dituzte derrigorrez:
 - a) Aurreko artikuluan aipatu diren eta administrazio publikoek kirol eta aisialdi alorretan ezartzen dituzten jarduketa protokoloak aplikatzea.
 - b) Monitorizazio sistema bat ezartzea, bermatzeko adingabeekin lotutako aurreko protokoloak bete egiten direla.
 - c) Izendatzea zein izango den adingabeek beraien ezinegonak adierazi ahal izateko ordezkaria. Ordezkariorrek, halaber, ezarritako protokoloak hedatzen eta betetzen direla bermatuko du eta beharrezko komunikazioak egingo ditu umeen edo nerabeen aurkako indarkeria egoerak detektatzen direnean.
 - d) Beharrezko neurriak ezartzea kirolean, jarduera fisikoan, kulturen eta aisialdian diskriminazio egoerarik gertatu ez dadin adinagatik, arrazagatik, desgaitasunengatik, sexu orientazioarengatik, identitate sexualarengatik, genero adierazpenengatik edo bestelako inguruabar pertsonal edo sozialengatik. Horretarako, umeekin, nerabeekin eta beraien familiekin eta profesionalekin lan egingo da eta guztien artean irainak eta adierazpen iraingarriak eta diskriminatzaileak arbuiautuko dira.
 - e) Umeek eta nerabeek beraien prestakuntzako eta garapen integraleko alderdi guztietan parte har dezaten sustatzea.
 - f) Kirol erakundeen, gurasoen eta tutoretza, zaintza edo harrera funtzioak betetzen dituztenen arteko harremanak eta komunikazioa sustatzea eta indartzea.
2. Halaber, 5. artikuluan aipatutako prestakuntzaz gain, erakunde horietako langileek prestakuntza espezifikoa jaso beharko dute desgaitasuna duten umeen eta nerabeen askotariko gaitasun eta trebetasunei modu egokian erantzuteko, eta, horrela, kirol inklusiboa sustatzeko eta garatzeko.

6.



Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan jasotako araubidea aplikatzean kirolean sortzen diren eraginak.

Kontzientzia

Ez gara bakarrik entrenatzaileak, begiraleak edo zuzendariak.

Kirolean lan egiten duten heldu guztiek jakin behar dute beraien zereginak kirol trebetasunak irakasteaz haratago doala.

Gure rol hezitzailea, erreferentea eta babeslea zein den jakin behar dugu. Horrek hauxe esan nahi du:

- Umeek zalantzak, susmoak edo kezkek dituztenean, horiek kontuan hartzea.
- Umeak eta beraien ongizatea gure lehentasuna izatea.
- Umeak babesik gabe utzi ditzaketan jokaerak saihestu eta prebenitzea.
- Kirola egiten duten umeen eskubideak bermatzea.



Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan jasotako araubidea aplikatzean kirolean sortzen diren eraginak.

Konpromisoa

Etikoki eta legalki umeak babesteko eta ondo tratatzeko konpromisoa hartu behar dute kirolaren alorrean aritzen diren erakundeek, klubek eta norbanakoek.

Kirolean umeekin izan behar dugun konpromisoarekin hauek lortu behar dira:

- Ongizatea sortzea.
- Kirol esperientzia onuragarria izatea umeen garapen osorako.
- Kirol hobekuntza eta lehiaketa hobekuntza pertsonalarekin, emozionalarekin eta harremanekin konbinatzea.
- Kirol jardueran umeen eskubideak errespetatzea.



Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan jasotako araubidea aplikatzean kirolean sortzen diren eraginak.

Administrazio publikoentzat

- Kirolean umek babesteari buruzko politika publikoa sortzea.
- Kirolaren eta aisialdiaren alorretan inguru segurua eraikitzeko jarduketako protokoloak sortzea.
- Federazioei, kirol erakundeei, profesionalei eta boluntarioei sortutako politikak eta protokoloak betetzeko exijitza:
 1. Prestakuntza espezifikoa umek babesteari eta ondo tratatzeari gokionez, eskola kirolean begirale edo entrenatzaile gisa jarduteko.
 2. Komunikazio eta salaketa bideak sortzea profesionalek, erakundeek edo umek indarkeria egoeren salaketen berri izan dezaten.
 3. Prestakuntza profesional egokia eta ematea delitu sexualen ziurtagiri negatiboa derrigorrezkoa izatea.
- Erakundeei, federazioei, klubei eta norbanakoei aholkularitza eta prestakuntza egokia ematea eta horiei laguntzea.

Kirolean lan egiten duten profesional guztiei erantzukizun hori EXIJITU behar diete.



Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan jasotako araubidea aplikatzean kirolean sortzen diren eraginak.

Federazioentzat

- Araubideetan, zirkularretan, eta abarretan agintaritza publikoek kirolean umeak babesteko sortzen dituzten legeen, protokoloen eta politika publikoen oinarritzko eskakizunak gehitzea.
- Bakoitzak bere kirolean eta federazioan kirolaren eta aisialdiaren alorretan inguru segurua eraikitzeko jarduketara protokoloak sortzea.
- Bakoitzak bere kiroleko autonomia erkidegoetako eta lurraldeetako federazioei, kirol erakundeei, profesionalei eta boluntarioei sortutako protokoloak betetzeko exijitzea.
- Umeak babestearen eta ondo tratatzearen alorrean prestakuntza espezifikoa exijitzea edo dagokion kirolean federazio lizentzia izan nahi duten profesionalentzako prestakuntza prozesuetan txertatzea.
- Umeak babesteko eta tratatu ona bermatzeko prestakuntza espezifikoa ematea.
- Umeak babesteko ordezkaria izatea.
- Komunikazio eta salaketa bideak sortzea profesionalek, erakundeek edo umeek indarkeria egoeren salaketen berri izan dezaten.
- Federazio lizentzia emateko delitu sexualen ziurtagiri negatiboa derri-gorrezkoa izatea.

10 .



Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan jasotako araubidea aplikatzean kirolean sortzen diren eraginak.

Kirol erakundeentzat

- Administrazio publikoek kirol eta aisialdi alorretan ezarritako jarduketa protokoloak aplikatzea.
- Erakundeen barnean protokoloak betetzen direla berrikustea.
- Babes ordezkaria izendatzea eta bera izatea erakundearen jarduerari hori gauzatzeko erreferentea.
- Umeen aurkako indarkeriaren aurrean modu egokian jarduteko eta indarkeria hori prebenitzeko eta prestakuntza emateko neurrien plana sortzea.
- Profesionalek eta umeei susmoak eta salaketak jakinarazteko komunikazio bideak sortzea.
- Gertatutako indarkeria egoeren berri ematea dagokion agintaritzari.
- Delitua eratzeko badute, sufritutako indarkeria egoerak salatzea.
- Umeen partaidetza sustatzea.

. 11



Umeei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan jasotako araubidea aplikatzean kirolean sortzen diren eraginak.

Profesionalak eta boluntarioak

- Umeekin zuzenean lan egiteko alor horretan prestakuntza jasotzeko beharra.
- Ume bati eragiten dion indarkeria gertakari baten berri izatean, hori salatzekeo derrigortasuna. Derrigortasun hori profesionalentzat eta boluntarioentzat da.
- Dagokion kirol federazioak edo lan egiten duten kirol erakundeak ezarritako protokoloak, planak eta neurriak betetzea.
- Sexu delituen ziurtagiri negatiboa.

12 .

